VITORIA GASTEIZ green capital!

# agenda CEA

## uda · verano 2016



CEA
Ingurugiro Gaietarako Ikastegia · Centro de Estudios Ambientales
20 URTE AÑOS
VITORIA-GASTEIZ 1995-2015

Centro de Estudios Ambientales
CEA
Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

# Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren jardueren agenda, 2016ko uda

**Izena ematea:**
Uztailaren 1etik aurrera, udal webgunean, Atarian, 010 telefonoan eta gizarte etxeetan

**Helbidea:**
Teodoro Dublang margolariaren kalea, 25

**Telefonoa:**
945161616

www.vitoria-gasteiz.org/igi
www.vitoria-gasteiz.org/atariaeu
www.vitoria-gasteiz.org/eraztunberdea

Argitaratzailea: IGI
Testuak eta maketazioa: IGI
Itzulpena: Udal Euskara Zerbitzua
Inprimatzea: Udal Kopiagintza Atala
Azala: Udal Komunikazio Bulegoa

# Agenda de actividades del Centro de Estudios Ambientales, verano de 2016

**Inscripciones:**
A partir del 1 de julio, en la web municipal, Ataria, 010 y Centros Cívicos

**Dirección:**
Calle Pintor Teodoro Dublang, 25

**Teléfono:**
945161616

www.vitoria-gasteiz.org/cea
www.vitoria-gasteiz.org/ataria
www.vitoria-gasteiz.org/anilloverde

Edición: CEA
Textos y maquetación: CEA
Traducción: Servicio de Euskera
Impresión: Unidad de Reprografía
Portada: Gabinete de Comunicación

## Jardueren prezioak (orduko)

| Jarduera | Norentzat | Abonatua ez dena | Abonatua eta unibertsitateko pasea |
|---|---|---|---|
| **Familientzako jarduerak** | Haurrak, jende oro | 2,00 | 1,20 |
| **Lantegi eta ikastaroak** | Gazteak, nagusiak, jende oro<br>Adinekoak | 3,00<br>1,50 | 1,80<br>0,90 |
| **Naturako jarduera eta ibilbideak** | Nagusiak, jende oro<br>Adinekoak | 2,00<br>1,00 | 1,20<br>0,60 |

Langabezian daudela egiaztatzen dutenek % 15eko murrizketa izango dute.

## Precios de las actividades (por hora)

| Actividad | Destinatarios | No abonado | Abonado y pase universitario |
|---|---|---|---|
| **Actividades familiares** | Infantil, público en general | 2,00 | 1,20 |
| **Talleres y cursos** | Jóvenes, adultos, público en general<br>Personas mayores | 3,00<br>1,50 | 1,80<br>0,90 |
| **Recorridos y eventos naturalísticos** | Adultos, público en general<br>Personas mayores | 2,00<br>1,00 | 1,20<br>0,60 |

Las personas que acrediten estar en situación de desempleo tendrán una reducción del 15 % de la cuantía.

## CEAren ekipamenduen ordutegia

2016ko uztaila - iraila

**Ataria**

Asteartetik igandera:

- Goizez: 11:00 - 14:00
- Arratsaldez: 16:00 - 20:00

Astelehenetan itxita (jaiegunak salbu)

**Atariko kafetegia**

Asteartetik igandera:

- Goizez: 11:00 - 14:00

Larunbat, igande eta jaiegunetan:

- 10:00 - 20:30

Astelehenetan itxita (jaiegunak salbu)

**Salburuko behatokiak**

9:00 - 21:30

**Eraztun Berdeko baratzeak**

Urarteko baratzeak: 8:30 - 21:30
Olarizuko baratzeak: 8:00 - 21:00

## Horarios de los equipamientos del CEA

Julio - septiembre 2016

**Ataria**

Martes a domingo:

- Mañana: 11:00 - 14:00
- Tarde: 16:00 - 20:00

Lunes cerrado (excepto festivos)

**Cafetería de Ataria**

Martes a domingo:

- Mañana: 11:00 - 14:00

Sábados, domingos y festivos:

- 10:00 - 20:30

Lunes cerrado (excepto festivos)

**Observatorios de Salburua**

9:00 - 21:30

**Huertas del Anillo Verde**

Huertas de Urarte: 8:30 - 21:30
Huertas de Olarizu: 8:00 - 21:00

# Aurkibidea


| | |
|---|---|
| ERAKUSKETAK | 8 |
| Intsektuak: forma eta irudien mikrokosmosa | 8 |
| Nepal, bizitzaren zikloa | 9 |
| Iberiar hegazti sarraskijaleak. Ekosistemen garbiketa patruila | 10 |
| LANTEGIAK ETA IKASTAROAK | 11 |
| Gaueko tximeletak identifikatzeko ikastaroa | 11 |
| NATUR IBILBIDEAK | 12 |
| Ibilbidea, Santo Tomas errekan barrena | 12 |
| Ibilbide gidatua: “Uda eta hegaztiak Salburuan” | 13 |
| Zetazeoak 10etan begiztatu | 14 |
| Hegazti migratzaileei beha | 15 |
| Gauez, marrualdia entzuten | 16 |
| FAMILIENTZAKO JARDUERAK | 17 |
| Bazkaleku aerostatikoa | 17 |
| Bisita gidatua “Intsektuak: forma eta irudien mikrokosmosa” erakusketara | 18 |
| Izarren gaua | 19 |
| Bisita gidatua “Nepal, bizitzaren zikloa” erakusketara | 20 |
| Proiekzioa: Nepaleko soinua eta espiritualtasuna | 21 |
| Dantza plazan | 22 |
| Sortu birziklatuz | 23 |
| Natura zentzumen guztien bidez | 24 |
| Berdeguneak, leku isilak | 25 |
| Urtebetetzea naturaren erdian, Atarian | 26 |

# Índice

| | |
|---|---|
| EXPOSICIONES | 8 |
| Insectos: un microcosmos de formas y colores | 8 |
| Nepal, el ciclo de la vida | 9 |
| Aves carroñeras ibéricas. La patrulla de limpieza de los ecosistemas | 10 |
| TALLERES Y CURSOS | 11 |
| Curso de identificación de mariposas nocturnas | 11 |
| RECORRIDOS NATURALÍSTICOS | 12 |
| Recorrido por el río Santo Tomás | 12 |
| Itinerario guiado “El verano y las aves en Salburua” | 13 |
| Avistamiento de “Cetáceos a las 10” | 14 |
| Un vistazo a las aves migradoras | 15 |
| Una noche en la berrea | 16 |
| ACTIVIDADES FAMILIARES | 17 |
| El comedero aerostático | 17 |
| Visita guiada a la exposición “Insectos: un microcosmos de formas y colores” | 18 |
| La noche de… las estrellas | 19 |
| Visita guiada a la exposición “Nepal, el ciclo de la vida” | 20 |
| Proyección, sonido y espiritualidad de Nepal | 21 |
| Dantza plazan | 22 |
| Crea reciclando | 23 |
| La naturaleza con otros sentidos | 24 |
| Espacios verdes, lugares de silencio | 25 |
| Cumpleaños natural en Ataria | 26 |


Museo de la Biodiversidad

## Intsektuak: forma eta irudien mikrokosmosa

**Biodibertsitatearen Museoa eta Alacanteko Unibertsitatea**

Erakusketa honen helburu nagusia bisitariei izaki bizidunen talde ugariena eta askotarikoena aurkeztea da: intsektuak; animalia horiek mespretxuz tratatzen ditugu oro har, ezjakintasunaren erruz.

Erakusketaren bidez topikoa apurtu nahi dugu, eta izaki txiki horiek alderdi erakargarri eta bitxienak azaldu. Izan ere, ekosistemen funtzionamendu egokirako beharrezkoak dira, eta polinizazioari, ekosistemaren orekari eta gizakion osasunari ere mesede handia egiten diete.

**Lekua:** Ataria
**Data:** ekainaren 7tik uztailaren 17ra

## Insectos: un microcosmos de formas y colores

**Museo de la Biodiversidad y Universidad de Alicante**

El principal objetivo de esta exposición es acercar a los visitantes el grupo más abundante y diverso de todos los seres vivos: los insectos; unos animales que por lo general tratamos despectivamente, por desconocimiento e ignorancia.

Con esta exposición trataremos de romper ese tópico y mostrar los aspectos más llamativos y curiosos de estos pequeños seres vivos, tan necesarios para mantener el buen funcionamiento de los ecosistemas, como importantes por los beneficios que prestan en la polinización, el equilibrio ecosistémico e incluso en la salud humana.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** del 7 de junio al 17 de julio




## Nepal, bizitzaren zikloa

**Tato Edroso**

Argazkilaria

Nepaldarrek uste dute heriotzarekin bizitza iristen dela, eta horrela hurrenez hurren. Lurrikarak suntsitutako herrialde horretan, sinesmen hori izango da herritarrak berpiztuko dituena.

Naturako bost elementuak-lurra, ura, airea, sua eta espazioa-ardatz nagusitzat hartzen dituen erakusketa honek, argazkien bitartez, Nepaleko eguneroko bizitza erakutsiko digu, lurrikara gertatu aurrekoa. Bertako natura jarriko digu aurrez aurre, nekazari-mundua eta hiriko bizimodua. Hango jendearen eguneroko bizitzan eta lekuetan oinarritutako erakusketa dugu, lasaitasuna eta errespetua transmititzen saiatzen diren aurpegien bitartez hiri eta herrietan bor-bor dirakien existentziaz diharduena.

**Lekua:** Ataria
**Data:** uztailaren 26tik irailaren 4ra

## Nepal, el ciclo de la vida

**Tato Edroso**

Fotógrafo

Los nepalíes creen que con la muerte llega la vida y así sucesivamente. En un país destrozado por un terremoto, esa creencia es la que conseguirá que su ciudadanía vuelva a renacer.

A través de la fotografía, esta exposición, que tiene como hilo conductor los cinco elementos de la naturaleza: tierra, agua, aire, fuego y espacio, nos enseñará el día a día de Nepal antes del temblor. Nos ilustrará sobre su naturaleza y sobre su sociedad rural y urbana. Será una muestra basada en la vida cotidiana de sus gentes y de sus lugares, que habla de una existencia que hierve en ciudades y pueblos, a través de un conjunto de rostros que intentan transmitir serenidad y respeto.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** del 26 de julio al 4 de septiembre




## Iberiar hegazti sarraskijaleak. Ekosistemen garbiketa patruila

**Ramón Arambarri eta Mario Bregaña**

Naturako argazkilariak

Ramón Aranbarri eta Mario Bregaña argazkilariek aurkeztutako erakusketa honek hegazti enblematikoak aurkezten ditu, Iberiar penintsulan dauden 4 sai espezietatik hasi, korbidoetatik igaro eta elikadura mota horrekin bat egiten duten zenbait harraparirira arte, besteak beste arrano beltza.

Irudietan hegazti multzo horren edertasun berezia ikusarazi nahi da, bai eta hain ezagunak ez diren xehetasun eta abagune batzuk ere, haiek babesteak eta kontserbatzeak duen garrantziaren inguruko mezua bidaliz eta argazkien edertasunetik abiatuz, "adur txarreko txoriak" izateaz duten ospe txar bidegabeari aurre eginez.

**Lekua:** Ataria
**Data:** irailaren 13tik urriaren 16ra

## Aves carroñeras ibéricas. La patrulla de limpieza de los ecosistemas

**Ramón Arambarri y Mario Bregaña**

Fotógrafos de la naturaleza

La muestra presentada por los fotógrafos Ramón Arambarri y Mario Bregaña hace un recorrido por aves tan emblemáticas como los 4 buitres ibéricos, los córvidos, y algunas de las rapaces con quienes comparten esta forma de alimentación, entre las que se encuentra el águila real.

En las imágenes se pretende mostrar esa particular belleza de este grupo de aves, y algunos detalles y momentos desconocidos o difíciles de captar por el observador, lanzando un mensaje sobre la importancia de su protección y conservación, y combatiendo, desde la belleza de las instantáneas, esa fama injustamente ganada de "pájaros de mal agüero".

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** del 13 de septiembre al 16 de octubre




## Gaueko tximeletak identifikatzeko ikastaroa

**ZERYNTHIA elkartea**

Europan lepidopteroen ikerketarekiko zaletasun handia dago, hainbestekoa non urtero milioika pertsonak jarduten baitute behaketan, eta jarraipen programa errazetan ere parte hartzen baitute. Araban ere zaletasuna zabaltzen ari da, neurri batean, gure ingurunean espezie ugari dugulako.

Horregatik, IGIk gaueko tximeleten mundu zirraragarria ezagutzeko ikastaro bat antolatu du, Zerynthia elkarteko profesionalek gidaturik, ilunabarrean Eraztun Berdean ezkutatzen diren espezie garrantzitsuenak identifikatzen eta ezagutzen ikasteko.

**Lugar:** Ataria
**Data:** irailaren 17a, larunbata
**Ordutegia:** 16:30 - 20:00; Praktika: 21:00 - 24:00
**Norentzat:** jende oro
**Leku-kopurua:** : lekuak bete arte
**Oharrak:** jantzi beroak eramatea gomendatzen da
**Izena ematea:** ikusi 3. orr.

## Curso de identificación de mariposas nocturnas

**Asociación ZERYNTHIA**

En Europa es tan grande el apego que existe al estudio de los lepidópteros que todos los años millones de personas disfrutan con su observación o, incluso, participan en sencillos programas de seguimiento. Aquí, en Álava, también está calando hondo esta afición debido, en parte, a la gran diversidad de especies que alberga nuestro entorno.

Para descubrir el apasionante mundo de las mariposas nocturnas hemos organizado desde el CEA este curso, guiado por profesionales de la asociación ZERYNTHIA, con el que aprenderás a identificar y reconocer las principales especies que vuelan al anochecer en el Anillo Verde.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** sábado, 17 de septiembre
**Horario:** 16:30 - 20:00; Práctica: 21:00 - 24:00
**Dirigido a:** público en general
**Nº de plazas:** hasta completar aforo
**Observaciones:** se recomienda llevar ropa de abrigo
**Inscripciones:** ver pág. 3




## Ibilbidea, Santo Tomas errekan barrena

Faunaren igarobideak, natur ingurune ederrenak lotzen dituzten ur-erretenak, aisialdirako lekuak, errepideei itzuri egiteko bideak... Hori eta askozaz gehiago eskaintzen digute etxe ondoan ditugun eta gaur egun ia ezagutzen ez ditugun erreka horiek. Gure udalerriko errekak dira, ikasteke daukagun ikasgaia.

Oraingo honetan, Santo Tomas erreka bisitatuko dugu. Beste hainbat bezain duina eta ederra. Erreka-bidearen goiko aldean, putzu politak erakutsiko dizkigu, eta bazterretan zer gorabehera izan ziren igartzeko zantzuak. Guztia ere ibilbide lasai batean barrena, sorburutik hasi —istinga eder bat— eta gurutzatzen dituen lehenengo herrietaraino. Arkautiko erreka da, Salburukoa, Betoñukoa...

**Lekua:** Ataria
**Data:** uztailaren 9a, larunbata
**Ordutegia:** 08:30 - 13:00
**Norentzat:** jende oro
**Leku-kopurua:** 30
**Oharra:** mendiko botak eramatea gomendatzen da
**Izena ematea:** ikusi 3. orr.
**Prezioa:** ikusi 4. orr.

## Recorrido por el río Santo Tomás

Corredores de fauna, venas de agua que enlazan las mejores áreas naturales, espacios de ocio, senderos para sortear carreteras… Eso y mucho más es el potencial de estos ríos, hoy casi desconocidos y que tenemos a la puerta de casa. Son los ríos de nuestro municipio; una asignatura pendiente.

En esta ocasión visitaremos el río Santo Tomás. Un arroyo tan digno y gozoso como otros tantos. Su curso alto nos mostrará su belleza, nos presentará sus bonitas pozas y nos dará pistas de lo que se coció en sus orillas. Todo esto a través de un tranquilo recorrido desde su nacimiento en un bello trampal hasta los primeros pueblos que atraviesa. Es el río de Arkaute, de Salburua, de Betoño...

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** sábado, 9 de julio
**Horario:** 08:30 - 13:00
**Dirigido a:** público en general
**Nº de plazas:** 30
**Observaciones:** se recomienda llevar botas de monte
**Inscripciones:** ver pág. 3
**Precio:** ver pág. 4




## Ibilbide gidatua: “Uda eta hegaztiak Salburuan”

**SEO/BirdLife**

Uda garaia iristen denean, Salburuko paisaia aldatu egiten da, aintzirak lehortu egiten baitira, eta landareek eta faunak horretara moldatu beharra baitute.

Betoñuko eta Arkautiko aintziretan barrena egingo dugun ibilbide honetan, aldaketa horretaz jabetu ahal izango zara, hezegunearen zikloko beste fase bat dela erakutsiko dizugu. Izan ere, ezinbestekoa ere bada une hori, Salburuko animalia eta landare askok beren bizi-zikloa osatu dezaten. Gainera, Las Zumas behatokia ere bisitatuko dugu, eta uda osoa Salburuan egiten duten espezieetako batzuk begiztatu ahal izango dituzu bertatik.

**Lekua:** Ataria
**Data:** uztailaren 17a, igandea
**Ordutegia:** 10:00 - 12:30
**Norentzat:** jende oro
**Leku-kopurua:** 20
**Izena ematea:** ikusi 3. orr.

## Itinerario guiado “El verano y las aves en Salburua”

**SEO/BirdLife**

Con la llegada de la época estival el paisaje de Salburua se transforma, las balsas se van secando, y la vegetación y la fauna responden también a estas modificaciones.

Con este itinerario por las balsas de Betoño y Arkaute, apreciarás este cambio y te mostraremos cómo esta fase es una más del ciclo del humedal. Un momento incluso imprescindible para que muchos de los animales y plantas de Salburua completen sus ciclos vitales. Además, aprovecharemos para visitar el observatorio de Las Zumas, desde donde podrás contemplar algunas de las especies que se mantienen en Salburua durante todo el verano.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** domingo, 17 de julio
**Horario:** 10:00 - 12:30
**Dirigido a:** público en general
**Nº de plazas:** 20
**Inscripciones:** ver pág. 3


Gorka Belamendia

## Zetazeoak 10etan begiztatu

Zetazeoek, itsasoko ugaztun handi horiek, espezie ugari biltzen dituen animalia-multzoa osatzen dute. Historian zehar, eta munduko hainbat lekutan, ia desagertzeraino ustiatu izan ditu gizakiak.

Horiek kontserbatzeak duen garrantziaz jabearazteko asmoz, ontzi batean itsas zabalera ateratzeko aukera eskaintzen dizute Atariak eta Euskadiko Biodibertsitate Zentroak. Abagune paregabea baleak, izurdeak edo Cuvier baleak begiztatu eta haien ondoan nabigatzeko, eta euskal kostaldeko itsas bizitzaz gozatzeko. Esperientzia ahaztezina izango da.

**Lekua:** Bermeoko kaia
**Data:** uztailaren 23a, larunbata, eta abuztuaren 27a, larunbata
**Ordutegia:** 10:00-14:00.
**Norentzat:** jende oro
**Leku-kopurua:** 55
**Izena ematea:** 946 870 402
**Prezioa:** 38 € helduak eta
25 € adingabeak (7-12 urte)

## Avistamiento de “Cetáceos a las 10”

Los cetáceos, esos grandes mamíferos marinos, son un grupo animal cuya gran variedad de especies ha sido explotada a lo largo de la historia y en diferentes lugares del mundo, hasta ponerlos casi al borde de la extinción.

Con el objetivo de dar a conocer la importancia de su conservación, Ataria y el Centro de Biodiversidad de Euskadi, te ofrecen la posibilidad de hacer una salida a alta mar en barco. Una oportunidad única para avistar y navegar junto a ballenas, delfines o zifios, y para disfrutar de la vida marina de nuestra Costa Vasca. Será una experiencia inolvidable.

**Lugar:** puerto de Bermeo
**Fecha:** sábado, 23 de julio y sábado, 27 de agosto
**Horario:** 10:00 - 14:00
**Dirigido a:** público en general
**Nº de plazas:** 55
**Inscripciones:** 946 870 402
**Precio:** 38 € adultos y
25 € menores (7-12 años)



Gorka Belamendia

## Hegazti migratzaileei beha
**SEO/BirdLife**

Sahara gurutzatzen duten hegazti migratzaileen taldea berezia da, beren aparteko elikadura-erregimena dela eta era ezberdinean eboluzionatu baitute. Eskuragarri dituzten baliabide trofikoetara egokitzen jakin duten hegaztiak dira, eta, horretarako, urtean zehar kontinente batetik bestera igaro beste erremediorik ez dute izan. Beraz, ibilbide luzeko hegazti migratzaileak dira, eta beren migrazio-ohiturak oso interesgarriak dira klima-aldaketaren ondorioak ikertzeko.

Bisitan arreta berezia eskainiko diogu fenomeno horri, eta berotze globalak Europa eta Afrika arteko migrazio-sisteman izan ditzakeen ondorioei.

**Lekua:** Ataria
**Data:** abuztuaren 21a, igandea
**Ordutegia:** 10:00 - 12:30
**Norentzat:** jende oro
**Leku-kopurua:** 20
**Izena ematea:** ikusi 3. orr.

## Un vistazo a las aves migradoras
**SEO/BirdLife**

Las aves migradoras transaharianas son un grupo especial de pájaros que han evolucionado de forma diferente gracias a su particular régimen alimenticio. Son aves que han sabido adaptarse a la cantidad de recursos tróficos y para ello no les ha quedado más remedio que variar de continente a lo largo del año. Son por lo tanto, aves migradoras de larga distancia y su patrón de migración es muy interesante para investigar los efectos del cambio climático.

En esta visita pondremos especial atención en conocer este fenómeno y el efecto que se espera observar en el sistema migratorio Euro-Africano como consecuencia del calentamiento global.

**Lugar:** Ataria
**fecha:** domingo, 21 de agosto
**Horario:** 10:00 - 12:30
**Dirigido a:** público en general
**Nº de plazas:** 20
**Inscripciones:** ver pág. 3



Gorka Belamendia

## Gauez, marrualdia entzuten

Naturak, beti dinamikoa eta aldakorra baita, gertaera ezberdinak eskaintzen dizkigu urtean zehar. "Entzutetsuenetako bat", Salburuko hezegunean, marrualdia dugu. Udazken hasieran, orein arrek marru ozenak egiten dituzte, emeak erakarri eta etsaiei indarra eta nagusitasuna erakusteko. Soinu ozen horiek ez dira oharkabean geratzen, eta, horregatik, hezegune osoan sumatzen da une goren hori.

Ataritik, ilunabarrean Salburuko aintziretan barrena ibiltzera gonbidatzen zaituztegu, soinu-ikuskizun aparta horretaz gozatzeko.

**Lekua:** Ataria
**Data:** irailaren 30a, ostirala
**Ordutegia:** 20:00 - 21:30
**Norentzat:** jende oro
**Leku-kopurua:** 20
**Oharrak:** jantzi beroak eramatea gomendatzen da
**Izena ematea:** ikusi 3. orr.
**Prezioa:** ikusi 4. orr.

## Una noche en la berrea

La naturaleza, siempre dinámica y cambiante, nos va ofreciendo diferentes acontecimientos a lo largo del año. Uno de los más "sonados" en el humedal de Salburua es la berrea. Al comenzar el otoño, en su ritual de atraer a las hembras, los ciervos machos emiten graves sonidos demostrando a los rivales su fuerza y dominancia. Estos vibrantes sonidos no pasan desapercibidos y por ello todo el humedal siente este gran momento.

Desde Ataria os invitamos a recorrer las balsas de Salburua al anochecer para disfrutar de un espectáculo sonoro que no os podéis perder.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** viernes, 30 de septiembre
**Horario:** 20:00 - 21:30
**Dirigido a:** público en general
**Nº de plazas:** 20
**Observaciones:** se recomienda llevar ropa de abrigo
**Inscripciones:** ver pág. 3
**Precio:** ver pág. 4


Txerra Pérez

## Bazkaleku aerostatikoa

Anima zaitez lantegi honetan parte hartzera. Gure etxeen gainetik hegan ibili ohi diren txori txikientzako bazkaleku bat egiten ikasiko duzu, berezia oso. Soka, globo bat eta ontzi txiki bat besterik gabe, nork bere globo aerostatikoa egingo du, eta bakoitzak nahi bezala apaindu ahal izango du berea.

Metodo dibertigarri eta original horren bitartez, zure balkoi edo terrazara inguraraziko dituzu hegazti jostalari horiek, eta beren kantu eta txorrotxio gozoekin alaituko dizkizute goizak. Bazkaleku oso erakargarria izango da, hirian lehendik ia ikusi gabea, eta bertara jotzen duten hegaztien artean ez ezik, auzokoen artean ere sortuko du zalaparta.

**Lekua:** Ataria
**Data:** uztailaren 16a, larunbata
**Ordua:** 11:30 - 13:00
**Norentzat:** 6 eta 12 urte bitarteko haurrak
**Leku-kopurua:** 20
**Izena ematea:** ikusi 3. orr.

## El comedero aerostático

Anímate a acudir a este taller en el que aprenderás a hacer un comedero muy original para los pequeños pajaritos que sobrevuelan nuestros hogares. Con tan solo cuerda, un globo y un pequeño cuenco confeccionaremos nuestro propio globo aerostático, al que podrás darle tu toque personal decorándolo a tu gusto.

Con este divertido y original método atraerás a estos juguetones voladores a tu balcón o terraza para que así alegren nuestras mañanas con sus dulces cantos y trinos. Será un comedero muy atractivo, apenas visto en la ciudad, lo que seguramente cause un revuelo no solo entre las aves que a él acudan sino entre tus propios vecinos.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** sábado, 16 de julio
**Horario:** 11:30 - 13:00
**Dirigido a:** niños y niñas entre 6 y 12 años
**Nº de plazas:** 20
**Inscripción:** ver pág. 3




## Bisita gidatua “Intsektuak: forma eta irudien mikrokosmosa” erakusketara

### Biodibertsitatearen Museoa eta Alacanteko Unibertsitatea

Zatoz izaki bizidunen talde ugariena eta askotarikoena ezagutzera: intsektuak. Erakusketaren sortzaileen eskutik egin ahal izango duzu: Biodibertsitatearen Museoa eta Alacanteko Unibertsitatea. Ikusiko duzu nola aldatzen den ezjakintasunaren erruz oro har mespretxuz tratatzen ditugun animalia horiei buruz duzun iritzia.

Bisita gidatuaren bitartez topikoa apurtzen saiatuko gara, eta izaki txiki horien alderdi erakargarri eta bitxienak azaltzen. Izan ere, ekosistemen funtzionamendu egokirako beharrezkoak dira, eta polinizazioari, ekosistemaren orekari eta gizakion osasunari ere mesede handia egiten diete.

**Lekua:** Ataria
**Data:** uztailak 16, larunbata, eta 17, igandea
**Ordutegia:** 12:00 - 13:00
**Norentzat:** jende oro

## Visita guiada a la exposición “Insectos: un microcosmos de formas y colores”

### Museo de la Biodiversidad y Universidad de Alicante

Acércate a conocer el grupo más abundante y diverso de todos los seres vivos: los insectos, de la mano de los creadores de la exposición: el Museo de la Biodiversidad y la Universidad de Alicante. Verás cómo cambia tu opinión hacia unos animales que por lo general tratamos despectivamente, por desconocimiento e ignorancia.

Con esta visita guiada intentaremos romper ese tópico y mostrar los aspectos más llamativos y curiosos de estos pequeños seres vivos, tan necesarios para mantener el buen funcionamiento de los ecosistemas, como importantes por los beneficios que prestan en la polinización, el equilibrio ecosistémico e incluso en la salud humana.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** sábado 16 y domingo 17 de julio
**Horario:** 12:00 - 13:00
**Dirigido a:** público en general




## Izarren gaua

Inguratzen gaituen munduarekiko jakinminak bultzaturik gora begiratzen dugunean izartegiaren sakontasunak eta mugagabetasunak harrapatzen gaitu.

Beste behin ere, Atarian gau berezia igarotzera gonbidatzen zaitugu; hitzaldi bat entzun, afaldu eta izarrartearen behaketaz gozatu ahal izango duzu tarte batez, Arabako Astronomia Elkarteko astronomoen eskutik. Izarrak, ilargia eta planetak hurbilduko dizkigute.

Eguraldiak laguntzen badu, uda-gau bateko amets ahaztezina biziko dugu.

**Lekua:** Ataria
**Data:** uztailaren 22a, ostirala
**Ordutegia:** 20:00 - 23:30
**Norentzat:** jende oro
**Leku-kopurua:** 20
**Izena ematea:** ikus 3. orr.
**Prezioa:** 25 €

## La noche de... las estrellas

En muchas ocasiones nuestra curiosidad por el mundo que nos rodea nos lleva a alzar la mirada y a sumergirnos en lo profundo del firmamento, quedándonos atrapados en su inmensidad.

Una vez más, te invitamos a pasar una velada especial en Ataria, en la que podrás disfrutar de una conferencia, una cena y un momento para la observación del firmamento, con la ayuda de astrónomos de la Sociedad Astronómica de Álava. Sus miembros nos acercarán las estrellas, la luna y los planetas.

Si las condiciones meteorológicas lo permiten, viviremos un inolvidable sueño de una noche de verano.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** viernes, 22 de julio
**Horario:** 20:00 - 23:30
**Dirigido a:** público en general
**Nº de plazas:** 20
**Inscripciones:** ver pág. 3
**Precio:** 25 €




## Bisita gidatua “Nepal, bizitzaren zikloa” erakusketara

**Tato Edroso**

Sakrifizio-lur honetan, bizitza bera bezalaxe, erabateko naturaltasunez bizi dute berraragiztatzea. Nepaleko edozein txokotan tenplu bat altxatzen da, buda bat ageri da meditatzen, jainkosa batek erreinatzen du, eskaintza bat egiten da, abestu, kanpaiak jo edo kapera txiki bat prestatzen jainko eta jainkosen ohorez, kandelekin, janaria eta urarekin, arroz aleekin edo petaloak lurrean sakabanatuta.

Erakusketara egingo den bisitaldi gidatu honek Nepalen erretratu bat erakutsi nahi du, hainbat ikuspuntutik: kultura, espiritualtasuna, natura eta jendea. Egilearen eskutik egingo den bisita honen bitartez, nepaldarren herria identifikatzeko saioa egin nahi da, hura gogoratzeko, oroimenean atxikitzeko.

**Lekua:** Ataria
**Data:** abuztuaren 14a, igandea
**Ordutegia:** 12:00 - 13:00
**Norentzat:** jende oro

## Visita guiada a la exposición “Nepal, el ciclo de la vida”

**Tato Edroso**

En esta tierra de sacrificios la reencarnación se vive con tanta naturalidad como la vida. En cualquier rincón de Nepal se levanta un templo, medita un Buda, reina una diosa, se hace una puja, se canta, tocan las campanas o se prepara una pequeña capilla, donde honrar con velas, comida, agua, granos de arroz o pétalos esparcidos por el suelo a los diferentes dioses y diosas.

Esta visita guiada a la exposición pretende ser un retrato del Nepal desde diferentes puntos de vista: cultural, espiritual, de naturaleza y de sus gentes. Una visita que, de la mano de su autor, busca identificar al pueblo nepalí y recordarlo para seguir haciéndolo presente en nuestras memorias.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** domingo, 14 de agosto
**Horario:** 12:00 - 13:00
**Dirigido a:** público en general




## Proiekzioa: Nepaleko soinua eta espiritualtasuna

**Tato Edroso**

Sakrifizio-lur honetan, bizitza bera bezalaxe, erabateko naturaltasunez bizi dute berraragiztatzea. Nepaleko edozein txokotan tenplu bat altxatzen da, buda bat ageri da meditatzen, jainkosa batek erreinatzen du, eskaintza bat egiten da, abestu, kanpaiak jo edo kapera txiki bat prestatzen jainko eta jainkosen ohorez, kandelekin, janaria eta urarekin, arroz aleekin edo petaloak lurrean sakabanatuta.

Zatoz Atarira, Tibeteko gopor eta gongen soinuak lagunduko duen proiekzio hau ikustera. Bertan, Nepalen erretratu bat egingo digu egileak, bertako kultura, natura eta jendea erakutsiko. Nepaldarren herrira gerturatzeko saio bat izango da, hura gogoratu eta oroimenean atxikitzeko bide emango diguna.

**Lekua:** Ataria
**Data:** irailaren 4a, igandea
**Ordutegia:** 18:00 - 19:00
**Norentzat:** jende oro

## Proyección, sonido y espiritualidad de Nepal

**Tato Edroso**

En esta tierra de sacrificios, la reencarnación se vive con tanta naturalidad como la vida. En cualquier rincón de Nepal se levanta un templo, medita un Buda, reina una diosa, se hace una puja, se canta, tocan las campanas o se prepara una pequeña capilla donde honrar con velas, comida, agua, granos de arroz o pétalos esparcidos por el suelo a los diferentes dioses y diosas.

Acércate hasta Ataria para contemplar una proyección que estará acompañada por el sonar de los cuencos tibetanos y gongs. En ella, su autor nos hará un retrato del Nepal desde el punto de vista de su cultura, su naturaleza y sus gentes. Todo un acontecimiento que busca acercarnos al pueblo nepalí y a recordarlo para que siga presente en nuestras memorias.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** domingo, 4 de septiembre
**Horario:** 18:00 - 19:00
**Dirigido a:** público en general



## Dantza plazan

Udal Folklore Akademiaren laguntzarekin, euskal dantza ezagunenekin gozatzeko gonbitea egiten dizuegu. Hau da gure ideia: dantzaren zentzu ludikoa berreskuratzea. Ikusle ez ezik parte-hartzaile izateko aukera izango dute ikusleek, dantza tradizionalak dantzatzeko aukera.

Saio kolektibo batez gozatzeko aukera izango duzu, folklorearen eta musika herrikoiaren soinuarekin; gertuko natur-ingurune batera moldatuko dugu erromeria tradizionala, Salburuko parkera, hain zuzen ere.

**Lekua:** Ataria
**Data:** irailaren 9a, ostirala
**Ordutegia:** 20:00 - 21:15
**Norentzat:** jende oro

## Dantza plazan

En colaboración con la Academia Municipal de Folklore os invitamos a disfrutar con las danzas vascas más conocidas. Nuestra idea: recuperar el sentido lúdico de la danza. El público tendrá la oportunidad de ser participante, bailando estas danzas tradicionales, a la vez que espectador.

Disfrutarás de un encuentro colectivo al son del folklore y la música popular, en el que adaptaremos la romería tradicional a un ambiente natural y cercano, como es el lugar elegido para este evento: el parque de Salburua.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** viernes, 9 de septiembre
**Horario:** 20:00 - 21:15
**Dirigido a:** público en general



Denise Cortez

## Sortu birziklatuz

Egungo gizartean, paperaren neurriz kanpoko erabilerak baso-masa handiak suntsitzea dakar berekin. Papera fabrikatzeko prozesua oso kutsagarria da, eta ur- eta energia-kontsumo handia eskatzen du. Horregatik, ingurumenaren alde egiteko, paper kontsumoa murriztu beharra daukagu, gure esku dagoen guztietan berrerabili eta birziklatu beharra.

Papera egiten ikasi nahi duzu? Tarte dibertigarri bat pasatu nahi duzu, eskulanak egiten? Hala bada, hau duzu behar duzun jarduera, paper zaharrarekin berria egiten ikasiko baituzu, eta horrekin eskulan dibertigarriak egiten.

**Lekua:** Ataria
**Data:** irailaren 18a, igandea
**Ordutegia:** 12:00 - 13:30
**Norentzat:** 6 eta 12 urte bitarteko haurrak
**Leku-kopurua:** 20
**Izena ematea:** ikusi 3. orr.
**Prezioa:** ikusi 4. orr.

## Crea reciclando

En la sociedad actual, nuestro uso desmesurado de papel significa destruir grandes masas forestales. El proceso de fabricación es altamente contaminante y necesita un gran consumo de agua y energía. Por eso, para colaborar con el medio ambiente, tenemos que reducir nuestro consumo de papel, además de reutilizarlo y reciclarlo siempre que esté en nuestras manos.

¿Quieres aprender a fabricar papel? ¿Te animas a pasar un rato divertido creando tus propias manualidades? Si es así, esta es la actividad que necesitas, ya que aprenderás a transformar el papel viejo en uno nuevo, con el que hacer divertidas manualidades.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** domingo, 18 de septiembre
**Horario:** 12:00 - 13:30
**Dirigido a:** niños y niñas entre 6 y 12 años
**Nº de plazas:** 20
**Inscripción:** ver pág. 3
Precio: ver pág. 4



## Natura zentzumen guztien bidez

Era askotara gozatu daiteke naturaz. Oraingo honetan, Paco Gálvez eta Constanza Garzónek osatzen duten duetoaren bitartez egiteko aukera eskaintzen dizugu, tronpeta barrokoa eta pianoa baliatuz naturarekin zerikusia duten hainbat pieza interpretatuko baitituzte.

Belarria nahiz ahoa gozatzeko aukera izango duzu ekitaldi honetan, zentroko kafetegian berariaz prestatutako afari bikaina zerbitzatuko baitizute.

Anima zaitez eta zatoz naturaz zentzumen guztiekin gozatzera!

**Lekua:** Ataria
**Data:** irailaren 23a, ostirala
**Ordutegia:** 20:30 - 23:30
**Norentzat:** 14 urtetik gorakoak
**Leku-kopurua:** 20
**Izena ematea:** ikusi 3. orr.
**Prezioa:** 25 €

## La naturaleza con otros sentidos

Se puede disfrutar de la naturaleza de muchas formas. En esta ocasión te ofrecemos la oportunidad de hacerlo al son del dueto formado por Paco Gálvez y Constanza Garzón, quienes a la trompeta barroca y al piano, respectivamente, interpretarán diversas piezas relacionadas con la naturaleza.

Durante este evento tendrás la oportunidad de hacerle un regalo al oído y al paladar, ya que la velada irá acompañada de una exquisita cena diseñada para la ocasión en la cafetería del centro.

¡Anímate y ven a disfrutar de la naturaleza con otros sentidos!

**Lugar:** Ataria
**Fechas:** viernes, 23 de septiembre
**Horario:** 20:30 - 23:30
**Dirigido a:** mayores de 14 años
**Nº de plazas:** 20
**Inscripción:** ver pág. 3
**Precio:** 25 €




## Berdeguneak, leku isilak

**Ixileku elkartea**

Gizaki guztiok gara gure ingurunearen zati, eta harekiko harmonia sustatu eta bizi dezakegu. Ikusten duguna isiltzeko beharra dugu, geure barne geografian txertatzeko eta, hartara, partaide garen harmonia ekologiko eta existentzialean ko-inspiratzeko.

Zatoz Atarira hilaren hirugarren ostegunetan, eta leku isil hori topatu ahalko duzu, Ixileku elkartearen eskutik.

**Lekua:** Ataria
**Data:** uztaileko eta iraileko ostegunetan
**Ordutegia:** 19:00 - 20:00
**Norentzat:** 16 urtetik gorakoak,
eta haurrak, lagunduta
**Leku-kopurua:** lekuak bete arte

## Espacios verdes, lugares de silencio

**Asociación Ixileku**

Todos los seres humanos formamos parte de nuestro entorno y podemos vivir y fomentar una convivencia armónica con él. Tenemos la necesidad de silenciar lo que vemos para incorporarlo a nuestra geografía interior y, así, co-inspirar en la armonía ecológica y existencial de la cual participamos.

Acércate a Ataria todos los jueves y de la mano de la Asociación Ixileku podrás encontrar este espacio de silencio.

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** jueves de julio y septiembre
**Horario:** 19:00 - 20:00
**Dirigido a:** mayores de 16 años
(niños y niñas acompañados/as)
**Nº de plazas:** hasta completar aforo



## Urtebetetzea naturaren erdian, Atarian

Atariak, Salburuko interpretazio zentroak, urtebetetzea bertan ospatzea proposatzen dizu, eta arratsalde dibertigarria igarotzea. Lagunekin askaria hartu eta ingurumen-jardueretan parte hartu ahalko duzu, jolastuz ikasteko.

Eman izena hilaren hirugarren larunbatean egiten den jarduera dibertigarri honetan. Anima zaitez, zain gaituzu!
taria.

**Lekua:** Ataria
**Data:** hilaren hirugarren larunbata
**Ordutegia:** 17:00 - 18:30
**Norentzat:** 6 eta 12 urte bitarteko haurrak
**Izena ematea:** ataria@vitoria-gasteiz.org
**Prezioa:** 6,00 € ume bakoitzeko

## Cumpleaños natural en Ataria

Desde Ataria te proponemos celebrar tu cumpleaños pasando una tarde divertida en Ataria, el Centro de Interpretación de Salburua. Además de merendar junto a tus amigos, podrás realizar diversas actividades ambientales en las que aprenderás jugando.

Aprovecha e inscríbete en esta entretenida actividad, que se lleva a cabo el tercer sábado de cada mes. ¡Anímate, te esperamos!

**Lugar:** Ataria
**Fecha:** tercer sábado de cada mes
**Horario:** 17:00 - 18.30
**Dirigido a:** niños y niñas de 6 a 12 años
**Inscripciones:** ataria@vitoria-gasteiz.org
**Precio:** 6,00 € por niño/a

## EKAINA

| | | |
|---|---|---|
| **7** | Intsektuak: forma eta irudien mikrokosmosa | 8. orr. |

## UZTAILA

| | | |
|---|---|---|
| **7** | Berdeguneak, leku isilak | 25. orr. |
| **9** | Ibilbidea, Santo Tomas errekan barrena | 12. orr. |
| **14** | Berdeguneak, leku isilak | 25. orr. |
| **16** | Bazkaleku aerostatikoa | 17. orr. |
| **16** | Urtebetetzea naturaren erdian, Atarian | 26. orr. |
| **16-17** | Bisita gidatua “Intsektuak: forma eta irudien mikrokosmosa” erakusketara | 18. orr. |
| **17** | Ibilbide gidatua: “Uda eta hegaztiak Salburuan” | 13. orr. |
| **21** | Berdeguneak, leku isilak | 25. orr. |
| **22** | Izarren gaua | 19. orr. |
| **23** | Zetazeoak 10etan begiztatu | 14. orr. |
| **26** | Nepal, bizitzaren zikloa | 9. orr. |
| **28** | Berdeguneak, leku isilak | 25. orr. |

## ABUSTUA

| | | |
|---|---|---|
| **14** | Bisita gidatua “Nepal, bizitzaren zikloa” erakusketara | 20. orr. |
| **20** | Urtebetetzea naturaren erdian, Atarian | 26. orr. |
| **21** | Hegazti migratzaileei beha | 15. orr. |
| **27** | Zetazeoak 10etan begiztatu | 14. orr. |

## IRAILA

| | | |
|---|---|---|
| **1** | Berdeguneak, leku isilak | 25. orr. |
| **4** | Proiekzioa: Nepaleko soinua eta espiritualtasuna | 21. orr. |
| **8** | Berdeguneak, leku isilak | 25. orr. |
| **9** | Dantza plazan | 22. orr. |
| **13** | Iberiar hegazti sarraskijaleak. Ekosistemen garbiketa patruila | 10. orr. |
| **15** | Berdeguneak, leku isilak | 25. orr. |
| **17** | Gaueko tximeletak identifikatzeko ikastaroa | 11. orr. |
| **17** | Urtebetetzea naturaren erdian, Atarian | 26. orr. |
| **18** | Sortu birziklatuz | 23. orr. |
| **22** | Berdeguneak, leku isilak | 25. orr. |
| **23** | Natura zentzumen guztien bidez | 24. orr. |
| **29** | Berdeguneak, leku isilak | 25. orr. |
| **30** | Gauez, marrualdia entzuten | 16. orr. |

## JUNIO

| | | |
|---|---|---|
| **7** | Insectos: un microcosmos de formas y colores | pág. 8 |

## JULIO

| | | |
|---|---|---|
| **7** | Espacios verdes, lugares de silencio | pág. 25 |
| **9** | Recorrido por el río Santo Tomás | pág. 12 |
| **14** | Espacios verdes, lugares de silencio | pág. 25 |
| **16** | El comedero aerostático | pág. 17 |
| **16** | Cumpleaños natural en Ataria | pág. 26 |
| **16-17** | Visita guiada a la exposición “Insectos: un microcosmos de formas y colores” | pág. 18 |
| **17** | Itinerario guiado “El verano y las aves en Salburua” | pág. 13 |
| **21** | Espacios verdes, lugares de silencio | pág. 25 |
| **22** | La noche de… las estrellas | pág. 19 |
| **23** | Avistamiento de “Cetáceos a las 10” | pág. 14 |
| **26** | Nepal, el ciclo de la vida | pág. 9 |
| **28** | Espacios verdes, lugares de silencio | pág. 25 |

## AGOSTO

| | | |
|---|---|---|
| **14** | Visita guiada a la exposición “Nepal, el ciclo de la vida” | pág. 20 |
| **20** | Cumpleaños natural en Ataria | pág. 26 |
| **21** | Un vistazo a las aves migradoras | pág. 15 |
| **27** | Avistamiento de “Cetáceos a las 10” | pág. 14 |

**SEPTIEMBRE**

| | | |
|---|---|---|
| **1** | Espacios verdes, lugares de silencio | pág. 25 |
| **4** | Proyección, sonido y espiritualidad de Nepal | pág. 21 |
| **8** | Espacios verdes, lugares de silencio | pág. 25 |
| **9** | Dantza plazan | pág. 22 |
| **13** | Aves carroñeras ibéricas. La patrulla de limpieza de los ecosistemas | pág. 10 |
| **15** | Espacios verdes, lugares de silencio | pág. 25 |
| **17** | Curso de identificación de mariposas nocturnas | pág. 11 |
| **17** | Cumpleaños natural en Ataria | pág. 26 |
| **18** | Crea reciclando | pág. 23 |
| **22** | Espacios verdes, lugares de silencio | pág. 25 |
| **23** | La naturaleza con otros sentidos | pág. 24 |
| **29** | Espacios verdes, lugares de silencio | pág. 25 |
| **30** | Una noche en la berrea | pág. 16 |

## Babesleak - Patrocinadores

## Laguntzaileak - Colaboradores